

BANAKETA KANALA

Gure produktua ikusgarri egiteko, onlineko publizitatea erabiliko dugu. Gaur egun, jendeak publizitatea bertatik ikusten du gehien bat. Hauetan bereiziki:

1. Instagram:

Instagrameko erabiltzaileen %66-ak 18 eta 34 urte artean kokatzen dira eta adin hauetarako publizitate nagusia hemen kokatuko dugu. Antolatzailea bilatzen badituzte edo horiei buruzko kontuak jarraitzen badituzte, ziur aski ateratzen den publizitate guztia antolatzaileei buruzkoa izango da. Horrela lortuko dugu jende zuzenarengana iristea, ezer egin gabe. Kostua ez da arazorik izango guretzat, publizitate bat igotzeko prezioa 0,15 eta 3 euro artekoa baita. Gure enpresaren kontuan astero igoko ditu publizitatea, horrela gure jarraitzaileak ikusi ahal izango dute edozer berri egiten badugu. Egunero historiak egiten saiatuko gara, gure erosleen arreta mantentzeko

2. TikTok:

Tik Tok Instagramen berdina gertatuko da. Bideoak igoko ditugu, eta horiek gure jarraitzaileengana eta antzeko bideoak dituzten pertsonengana zuzenduko dira; horrela, interesa duten jendearengana iristea lortuko dugu. Gure bideoetan guk aterako gara poltsoekin eta erakutsi egingo diegu zein gauza egin ahal dituzten.

Gure salmentak bi modutan egin daitezke

1. Denda fisikoan: Gure poltsak saltzeko, denda fisiko bat izango dugu. Han, bezeroak poltsak fisikoki ikusteko aukera izango dute eta haiek probatzeko. Honen bidez, gehien gustatzen zaiena aukeratuko dute. Horrez gain, dendan saltzaileak egongo dira aholkuak emateko eta salmenta errazteko. Antolatzailea gustatzen ez bazaie itzultzeko 30 egun edukiko dituzte.
2. Webgunean: Honen bidez, bezeroek haien gustuko produktua bilatu eta erosi ditzakete, eta erosketa egin ostean, banaketa egingo da haiek aukeratzen duten jasoketa puntura. Arazorik badago edo haien gustukoa ez bada, berriz bueltatu ahaliko dute 30 eguneko epearekin, antolatzailea egoera onean egon ezean, ez dugu dirurik bueltatuko.